



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Canvas eremuan, funtsezko baliabideak, hala nola: fisikoak, intelektualak (egile-eskubideak edo patenteak..) giza baliabideak eta finantza-baliabideak dira, bezeroentzat balioa sortzeko beharrezkoak direnak.

Hasieran, hobe da erosketan garestietan ez inbertitzea, proiektuak abiatze-etapa gogorra gainditzen ari den bitartean, izan ere oraindik ez da kapitala sortzen eta ondorioz ez da komeni oraindik ez daukagun dirua gastatzea. Hala ere, hainbat baliabide beharrezkoak dira proiektua martxan jartzeko.

Lehenik, baliabide fisiko gisa, plataformaren publizitatea egiteko beharko ditugunak sartzen dira: feriatan stand bat jartzeko lona, ikasgelatan eta beste hainbat tokietan jarriko diren posterrak eta ikasleei banatuko zaizkien flyerrak edota panfletoak. Plataforma digital bat den aldetik logikoa litzateke ordenagailu bat ere sartu ahal izatea kategoria honetan, izan ere tresna sortzeko ezinbestekoa da. Baina, hartzen dugun bidea hartuta ere, hau da, programatzailea partikular bat edo Arazi enpresa kontratatuta ere, ordenagailua beraiena izango da, beraz ez da gure kapitalaren barruan sartzen.

Bigarrenik, baliabide intelektualei dagokienez, enpresa bat martxan jartzeko ezinbestekoak diren dokumentuak daude. Study(H)all-en kasuan, egile-eskubideak eta langileen laneko kontratuak ezinbestekoak dira. Egile-eskubideak ideia original baten jabetza eta horrekin batera datozenak esate baterako plagioa ekiditea ahalbidetzen duen dokumentua da. Langileen laneko kontratuak aldiz langileak legalki guretzako lanean ari direla aitortzen duten

dokumentuak dira. Horretaz gainera, dokumentu hauek gure enpresarentzat lan egiteko dauden baldintzak zehazteko aukera ematen dute.

Giza-baliabideak ere ezinbestekoak dira enpresa bat aurrera eramaterako orduan. Hasiera batean enpresaren sortzaileak edota akzionistak daude, hau da, N2J taldea. Beranduago, Study(H)all aurrera eramateko adituak bilatu beharko dira: psikologoa eta antolakuntzan aditua den pertsona, eta programatzailea.

Azkenik, finantza-baliabideak daude. Finantza-baliabideak likidezia-mailaren bat duten aktiboak dira. Baina eskudirua baino finantza-baliabide mota gehiago daude. Horien artean: enpresa-funtsak, eskudiruaren baliokideak, kapital korporatibo osoa, eta azkenik, finantza-inbertsio likidoak. Enpresa-funtsak finantza -erakundeetako gordailuak dira. Study(H)all-en soilik bi motatatakoak sartzen dira, Hemen: udaletxeari eskatutako dirua, Lanbidekoa, Startup legearena eta Iparprint (disenuarekin dirulaguntza) sartzen dira. Kapital korporatibo osoa erakundearen aktibo osoetan inbertitutako diru guztiaren batura, kapital pasibotik sozialera, hala nola: enpresaren bazkideen edo jabeen akzioak.

N2J TALDEA